



## “Blogen ez tandarekin Sara Montiel Hollywooden bezala sentitzen nintzen”

Patxi Trapero | Blogofiloa

Zumarragako seme kuttuna,  
Urdangarinekin batera.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

**Aizu, ezagun zait zure aurpegia, telebistatik edo...**

*Sautrelan* azaldu nintzen hartan erdi-lo harrapatu zintudan nonbait, sofan. Kontuz ibili zer irudi jasotzen duzun lo geratu baino lehen: zaindu zure azpikontzientea.

**Zotz! Futbolaria ote zinen...**

Ezinezkoa ni futbolari izatea. Futbolariak minutu batean “bueno” hitza zortzi aldiz tartekatzeko dohain ikaragarria dute; oso urrutiko erronka, niretzat.

**Argi iezaguzu, otoi, abizenaren nondikoa.**

Joxe Mari Iparragirren lagun mina izan zen Alegiako Ramon Batista traperoa. Zer ikusi ote zuen Iparragirre bezalako gizon jantzi batek gizon zarpail harengan? Zer edo zer ederra behar zuen.

**Patxi Blogero, ez ote zenukeen behar orain.**

Onartzen dizut grazia. Ni oso gizon serioa naiz, eta bereziki ahalegintzen naiz ero puntu bat izaten, seko erotuko ez banaiz. Blogak asko laguntzen dit arrasto zuzenetik noiz-behinka ateratzen.

**Aitzindari batekin hitz egiten dudan lehen aldia da.**

Ba, behingoagatik, aizuz, nire buruari inportantzia eman behar diot. Bai jauna. Blogen ez tandata gertatu zenean, tarteka Sara Montiel Hollywooden bezala sentitzen nintzen.

**Zer du, ze misterio sareak, hala harrapatzeko?**

Errealitatea nork bere gustura eraldatzeko

aukera, etxeko intimitateak ausartagoa izateko eskaintzen dizun tranpolin gozatsua, aurrez aurreko harremanetan jasotzea hain zaila den estimua jasotzeko bide paregabea...

**Pentsa, Bernardo Atxagak egunero gosaltzen badu zure blogarekin...**

Halaxe da: orain hamar urte ez bezala, kontu gertagarria da. Satellite batek konekta gaitzake Bernardo eta biok, goizeko seietan, zereal eta masusta-mermelada artean.

**Baten bat pozik izango duzu, Estitxu Fernandez gora, Estitxu Fernandez behera...**

Bai, Estitxuren erreferentzia ugari aurkituko duzu nire blogean. Baina ez da hain gauza harrigarria. Askoz harrigarriagoa da, niretzat, Iruña-Veleiako aztarnategiari eskaintzen zaion arreta. Nik nahiago ditut, bi mila urteko aztarna hautseztatuak baino, gaur egungo monumentu miragarriak.

**Estitxu bera ere, akaso zorabiatu xamar.**

Ez al nuen haserraraziko! Hala balitz, barkamena eskatzeko prest nengoke, ez dakit ba, bazkaltzera gonbidatuta edo. Elkarrizketa hau irakurriko balu: Estitxu, izan al zara inoiz Arguiñanorenean?

**Dena den, Patxi, Arantza Quiroga dagoen lekuan...**

A bai, bai... Arantza Quirogak, ni bezalako ezkerzale erdi-boltxebikeentzat, sekulako sexu-erakarpena du. Muturrek elkarrengana-ko duten erakarpena, aizuz. Nik ere erakarriko al dut bera?! ■